

## **GIPUZKOAKO ESKUBALOI FEDERAZIOKO HAUTESKUNDE BATZORDEAREN BILERA // REUNIÓN DE LA JUNTA ELECTORAL DE LA FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE BALONMANO**

Aplikazio telematikoak erabiliz, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Hauteskunde Batzordea honako hauekin bildu da: // Utilizando aplicaciones telemáticas, se reúne la Junta Electoral de la Federación Guipuzcoana de Balonmano con los siguientes asistentes:

Lehendakaria: // Presidente: Xabat Beloki

Bokala // Vocal: Borja Burguete

Idazkaria //Secretaria: Virginia Rodriguez

Eta gai hauek aztertu dira gai-zerrendan: // Y con los siguientes asuntos en el orden del día:

### **PRIMERO: RESOLUCIÓN DEL RECURSO INTERPUESTO POR EL SR. IZTUETA**

ANTECEDENTES.- Esta Junta Electoral realizó un nuevo calendario electoral tras la suspensión del primero a causa del estado de alarma por orden de la resolución del Director de Actividad Física y Deporte del Gobierno. Al retomar el proceso electoral, con fecha de 22-06-2020, esta Junta Electoral aprobó un calendario donde todos los plazos no estaban correctamente recogidos según el Reglamento Electoral actualmente en vigor, y por eso con fecha de 25-06-2020, tras ser conocedores del error, el calendario fue modificado para cumplir adecuadamente todos los plazos.

Arguye el reclamante en sus dos primeros puntos del escrito con fecha 25-06-2020 que ciertos plazos del calendario electoral no son los correctos según la normativa en vigor. No obstante, se entiende que hace referencia al calendario electoral del 22-06-2020, y que con la modificación del mismo, la reclamación de los dos primeros puntos ha perdido su razón de ser.

Reclama por último que no se indican plazos para recurrir ante la Junta Electoral, e implícitamente da a entender que podría sufrir indefensión, vulnerando el artículo 24.1 de la Constitución. Si bien en el acta no aparece ninguna nota al respecto, sabe bien el recurrente por la normativa que él mismo cita que dichos plazos están recogidos en esa misma legislación, además del Reglamento Electoral actualmente en vigor, y que el análisis actualmente del recurso por él mismo presentado denota que no cae en absoluto en indefensión. No obstante, esta Junta Electoral hará referencia explícita a la posibilidad de recursos en lo sucesivo.

RESOLUCIÓN.- ESTIMAR PARCIALMENTE el recurso interpuesto por el sr. Iztueta, DESESTIMANDO los dos primeros puntos y ESTIMANDO el último punto, por lo que esta Junta Electoral hará referencia explícita a la posibilidad de recursos en lo sucesivo.

### **BIGARRENA.- GALLEGO JAUNAK AURKEZTUTAKO HELEGITEARI EBAZPENA**

AURREKARIAK.- Nortasun agiri zenbaki batzuk zerrendatu eta hautesle zerrendan ez daudela adierazten du, bere baieztapenaren inguruan proba gehigarriak aurkeztu gabe (lizentzia fisikoaren kopia edo argazki bat esaterako). Era berean, “lizentziak tramitatzeko ardura federazioarena da” dio helegite-aurkezleak, eta baieztapen horren inguruan federazioak lizentzia batzuk tramitatu gabe utzi dituela

ulertarazi nahi du.

Puntu horretara iritsi ostean, gogoan izan behar da indarrean dagoen hauteskunde araudiaren 21. artikulua araberaz hauteskunde-batzorde honek ez duela eskumenik federazio lizentziak baliogabetu edo eteteko eta "hauteskunde errolda onartzeko, hauteskunde batzordeak kontuan hartuko ditu erroldak, fitxategiak (...) eta abar; horiek guztiak hauteskunde batzordeak berak eskatuko dizkio federazioaren administrazio organuari". Hau kontuan izanik, behin-behinean argitaratutako hauteskunde-errolda egiteko, horixe bera jarraitu duela argi utzi nahi du hauteskunde-batzorde honek. Hauteskunde-batzorde honek beraz ez du baloratu behar, ezta baloratuko ere, ea lizentzia bat eskuratzeko jokalarari, epaile edo teknikari batek aurkeztu edo bete ote dituen indarrean dagoen araudiak ezarritako ezaugarriak. Hori ez da hauteskunde batzorde honen funtzioa.

Era berean, eta modu askoz murriztaileago batean, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren Epaileen Batzorde Teknikoaren araudiko 8. artikulua araberaz Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak berak du eskumena "(...) lizentzia berritzeko egindako eskaerak onartzeko edo ez onartzeko".

Horrez gain, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Lehiaketan Araudi Nagusiak bere 4.4 artikuluan "epailerik gabeko partidak" egon daitezkeela ulertzen du. Alegia, epaile lizentzia ez duten pertsonen epaile gisa norgehiagoka bat zuzendu dezaketela. Baina hor ere ezin da hauteskunde batzorde hau sartu. Hauteskunde batzordeak Federazioak berak dituen datuen isla besterik ez du izan behar.

Helegitea aurkeztu duenak besteen artean aipatzen duen gisa, Euskal Eskubaloi Federazioko Lizentzien arautegiko 13. artikulua, lizentzia lortzeko ezinbesteko ezaugarri bati buruz ari da: osasun azterketa. Osasun azterketarik gabe, lizentziarik ez da izango. Eta aurrez esan bezala, hauteskunde batzorde honek ez du baloratuko inolaz ere horrelako konturik. Arautegi horri lotuta, lizentziaren ukapenari buruz hizketan jarraitzen du Gallego jaunak helegitean. Nolanahi ere, hauteskunde batzorde honek ez du eskumenik lizentziak onartu edo ukatzeko, funtzio hori federazioari dagokio (dagokion kasutan), eta inori lizentzia arrazoi gabe ukatu zaiola uste badu, edo ezaugarriak bete gabe lizentzia onartu, federazioari zuzendu beharko zaio helegite jartzailea, edo ustez kaltea izan duten horiek. Hala ere, hauteskunde-batzorde honek ez du horrelako auzirik irekita dagoenaren konstantziarik. Ez hori bakarrik, gai honen inguruan Federazioko zerbitzu administratiboek berariaz kontsulta egin ostean, espreski esan digute hainbat lagunek lizentzia izateko tramiteak hasi bai, baina bukatu ez zituztela egin. Baina aurretik azaldu dugun bezala, hori hauteskunde batzorde honen eskumenetik at dagoen kontua da.

Azkenik, hauteskunde araudiaren 18. artikuluarik egiten dio erreferentzia helegitean. Hauteskunde batzorde honek, ez du konstantziarik aipatzen dituenetako inor hauteskunde zerrendatik kanpo utzi denik aipatutako artikuluan ezarritako arazoengatik.

**EBAZPENA.-** Gallego jaunak tartekatutako helegitea **PARTZIALKI AINTZATESTEA**, jarraian zerrendatutakoa kontuan izanda, eta Federazioko administrazio organuek helarazitako informazioari jarraiki, hauteskunde arautegiaren 21. artikulua araberaz:

- 73058719 : Jokalarien estamentuan egon behar du (2019-2020 denboraldian lizentzia hori bakarrik izan du)
- 2555158: Jokalarien estamentuan egon behar du (2019-2020 denboraldian lizentzia hori bakarrik izan du)
- 73031064: Jokalarien estamentuan egon behar du (2019-2020 denboraldian lizentzia hori bakarrik izan du)
- 72598737: Ez du lizentziarik. Ez du hauteskunde erroldan egon behar.
- 72857825: Jokalarien estamentuan egon behar du (2019-2020 denboraldian lizentzia hori bakarrik izan du)

-34086987: 2019-2020 denboraldian bakarrik izan du lizentzia. Ez du hauteskunde erroldan egon behar.  
-72518235: Ez du lizentziarik 2019-2020 denboraldian. Ez du hauteskunde erroldan egon behar.  
-79232424: Jokalarien estamentuan egon behar du. Ez du beste lizentziarik izan azken denboraldietan.  
-73215977: Ez du lizentziarik 2019-2020 denboraldian. Ez du hauteskunde erroldan egon behar.  
-50510820: Jokalarien estamentuan egon behar du (2019-2020 denboraldian lizentzia hori bakarrik izan du).

## **HIRUGARRENA.- IZAGA JAUNAK AURKEZTUTAKO HELEGITEARI EBAZPENA**

AURREKARIAK.-Izaga jaunak epaileen estamentuko erroldan ez dela agertzen azaldu eta bertan egotea dagokiola dio, azken bi denboralditan lizentzia izan omen duelako.

Federazioko zerbitzu administratiboei berariazko kontsulta egin ostean, hauteskunde araudiaren 21. artikulua arabera, azken denboraldian lizentzia tramitatzeko pausu guztiak ez dituela bukatu adierazi zaigu.

Honela bada:

EBAZPENA.- Izaga jaunak tartekatutako helegitea EZESTEAN bere osotasunean, ez dituelako betetzen indarrean dagoen hauteskunde araudiak eta Federazioko estatutuek ezarritako baldintzak betetzen hautesle erroldan egoteko.

Ebazpen hauen aurka errekurtsioa aurkez daiteke Hauteskunde Batzorde honetan eta/edo Kirol Justiziako Euskal Batzordean, indarreko arauak eta erregelamenduek ezarritakoaren arabera, bertan ezarritako epeetan.

Contra las presentes resoluciones cabe interponer recurso ante esta Junta Electoral y/o el Comité Vasco de Justicia Deportiva, según lo que establece la normativa y reglamentos en vigor, en los plazos fijados en los mismos.

## AKTA // ACTA

2020ko uztailaren 6an, hauteskunde batzordea bildu da, eta bertaratutako kideek ondorengo erabakiak hartu dituzte.

**LEHENA:** IZTUETA jaunak jarritako helegitea partzialki aintzatestea, aurrez azaldutako arrazoiak direla medio.

**BIGARRENA:** GALLEGO jaunak jarritako helegitea partzialki aintzatestea, aurrez azaldutako arrazoiak direla medio.

**HIRUGARRENA:** IZAGA jaunak jarritako helegitea ezeztatzea, aurrez azaldutako arrazoiak direla medio.

**LAUGARRENA:** Hautesle-errolda onartutzat ematea, akta honetan jasotako ñabardurak barne.

Reunida la Comisión Electoral el 6 de julio de 2020, los miembros presentes han adoptado los siguientes acuerdos.

**PRIMERO:** estimar parcialmente el recurso interpuesto por el Sr. Iztueta por los motivos anteriormente expuestos.

**SEGUNDO:** estimar parcialmente el recurso interpuesto por el Sr. Gallego por las razones anteriormente expuestas.

**TERCERO:** desestimar el recurso interpuesto por el Sr. Izaga por los motivos anteriormente expuestos.

**CUARTO:** dar por aprobado el censo electoral, con las matizaciones contenidas en el presente acta.

## BERTARATUTAKOAK // ASISTENTES

Lehendakaria: // Presidente: Xabat Beloki

Bokala // Vocal: Borja Burguete

Idazkaria //Secretaria: Virginia Rodriguez

Horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, egiaztagiri hau egin da, 2020ko uztailaren 6an. // Y para que así conste, se extiende la presente el 6 de julio de 2020.

LEHENDAKARIAK SINATUA

FDO: EL PRESIDENTE